sanmarkos
Mankomunitatea

1452573

# SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
# ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

| | | | |
|---|---|---|---|
| **AKTA ZK./*ACTA Nº*** | **304/20** | | |
| **LEKUA/*LUGAR*** | ARANTZAZU HOTELA/HOTEL ARANZAZU<br>Vitoria-Gasteiz 1; Donostia-San Sebastian | | |
| **EGUNA/<br>*DÍA*** | **ORDUA/<br>*HORA*** | **DEIALDIA/<br>*CONVOCATORIA*** | **Deialdi eguna/<br>*Fecha convocatoria*** |
| 2019/09/11<br>*11/09/2020* | Hasiera/inicio: 09:00<br>Amaiera/final: 09:10 | Ohikoa<br>*Ordinaria* | 2019/09/07<br>*07/09/2020* |

| **BERTARATUAK/ASISTENTES** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. KIDEAK/*VOCALES*** | | | | |
| **UDALA/<br>*AYTO.*** | **KIDEA/<br>*VOCAL*** | **BERTARATUA/<br>*HA ASISTIDO*<br>BAI/SI** | **EZ/NO** | **BOZKAK<br>*VOTOS*** |
| DONOSTIA<br>SAN SEBASTIAN | Aitziber San Román Abete | X | | 23,5 |
| | Marisol Garmendia Beloqui | X | | 23,5 |
| LASARTE-ORIA | David Mateos Jimenez | X | | 6,5 |
| | Jon Antxordoki Rekondo | X | | 6,5 |
| PASAIA | Lore Suarez Linazasoro | | X | -- |
| | Loreto Osa Ocon | X | | 6,5 |
| URNIETA | Jorge Segurado Iriondo | X | | 5,5 |
| | Mikel Pagola Tolosa | X | | 5,5 |
| LEZO | José Ángel Sánchez Gallardo | X | | 5,5 |
| | Miguel Angel Sánchez Antúnez | X | | 5,5 |
| ASTIGARRAGA | Xabier Urdangarin Lasa | X | | 5,0 |
| | Aitor Güemes Oyarbide | X | | 5,0 |
| ERRENTERIA | Bernardo Lemos Taberna | X | | 8,5 |
| | Jose Manuel Ferradas Freijo | X | | 8,5 |
| HERNANI | Martin Aldaya Olasagasti | | X | -- |
| | Mª Coro Echeverria Tolosa | | X | -- |
| OIARTZUN | Eneritz Arbelaiz Sarasti | X | | 5,5 |
| | Agustin Lekuona Irastorza | | X | -- |
| USURBIL | Lur Etxeberria Gurrutxaga | X | | 5,5 |
| | Joxe Mari Iribar Zapirain | X | | 5,5 |
| **2. BESTEAK/*OTROS*** | | **GUZTIRA<br>*TOTAL*** | | **132,00** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IDAZKARIA/<br>*SECRETARIO* | Xabier Loiola Aristi | ZUZENDARI KUDEATZAILEA<br>*DIRECTORA GERENTE* | Enara Intxausti Zamora |
| KONTU-HARTZAILEA/<br>*INTERVENTOR* | Julian Ortiz Arruabarrena | TEKNIKARI JURIDIKOA/<br>*TÉCNICA JURÍDICA* | Mirari Arriola Irizar |



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

| GAI ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| 1. **Aurreko bilerako akta onartzea.** | 1. **Aprobar el acta de la reunión anterior.** |
| 2. **Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.** | 2. **Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.** |
| 3. **"*San Marko Mankomunitateko garbiguneen erabiltzaileentzako harrera eta arreta zerbitzua eta hondakinen garraioa*" kontratuaren lizitazioa hastea (06/2020), prozedura irekiz eta bi sortetan banatuta.** | 3. **Iniciar la licitación para el contrato de "*Servicio de recepción y atención a los usuarios de los garbigunes de la Mancomunidad de San Marcos y el transporte de los residuos*" (06/2020), por procedimiento abierto y dividido en dos lotes.** |
| 4. **Galde-eskeak** | 4. **Ruegos y preguntas.** |

David Mateos Jiménez (Lasarte-Oria udaleko ordezkaria) bileran sartu da 3. gaia aztertzen ari zela.

David Mateos Jiménez (representante del ayuntamiento de Lasarte-Oria) se ha incorporado a la sesión cuando se está tratando el punto tercero.

**1. Aurreko bilerako akta onartzea.**

**1. Aprobación del acta de la reunión anterior.**

Aho batez onartu da 2020ko ekainaren 19ko bilkurako akta.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión del 19 de junio de 2020.

**2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.**

**2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.**

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari, 20 ebazpen (36/2020-55/2020).

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta, 20 resoluciones (36/2020-55/2020).

**3."*San Marko Mankomunitateko garbiguneen erabiltzaileentzako harrera eta arreta zerbitzua eta hondakinen garraioa*" kontratuaren lizitazioa hastea (06/2020), prozedura irekiz eta bi sortetan banatuta.**

**3. Iniciar la licitación para el contrato de "*Servicio de recepción y atención a los usuarios de los garbigunes de la Mancomunidad de San Marcos y el transporte de los residuos*" (06/2020), por procedimiento abierto y dividido en dos lotes.**

Lehendakaria eta Zuzendari-kudeatzaileak proposamena azaldu eta onartzea proposatu dute. Honela dio proposamenak:

El Presidente y la Gerente explican la propuesta y proponen su aprobación. La propuesta es la siguiente:

2010-2012 bitartean, San Marko Mankomunitatean aurreikusitako bost garbiguneak ireki ziren jendearentzat:

Entre los años 2010-2012 se abren al público los cinco garbigunes previstos en la Mancomunidad de San Marcos: Garbigunes

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Garberako, Atoxa-Errekako, Hernaniko, Oiartzungo eta Usurbilgo garbiguneak. Helburua, Donostialdeko eremuko etxeetako hondakinen kudeaketa hobetzea da, eta udalek beren zerbitzuan jartzen dituzten ohiko zerbitzuetan zuzeneko sarbiderik ez duten hondakinentzat aukera bat eskaintzen zaie herritarrei.

de Garbera, Atoxa-Erreka, Hernani, Oiartzun y Usurbil, con el objetivo de mejorar la gestión de los residuos domiciliarios del ámbito de Donostialdea, ofreciendo a sus ciudadanos una alternativa para aquellos residuos que no tienen un encaje directo en los servicios habituales que los ayuntamientos ponen a su servicio.

Horrela, gaikako bilketaren xede ez diren hondakin zerrenda luze batek, etxeko hondakin arriskutsuak, pneumatikoak, zurak, txatarrak, etab. lekua dute garbiguneetan, eta, beraz, hondakinen kudeaketa modernoaren osagarri ezin hobeak dira.

Así una extensa lista de residuos como los peligrosos del hogar, neumáticos, maderas, chatarra, etc. que no son objeto de recogidas específicas tienen cabida en los garbigunes, siendo por tanto un complemento ideal a una moderna gestión de residuos.

Urtez urte arreta jaso duten erabiltzaileei dagokienez, emaitza onak izan dira, bai eta kudeatutako materialen kopurua ere; horrek adierazten du helburua bete dela eta, beraz, irekita mantentzeko beharra dagoela.

Los buenos resultados en cuanto a usuarios atendidos año tras año, así como la cantidad de materiales gestionados son indicativos del cumplimiento de su objetivo e indicadores de la necesidad de mantenerlos abiertos.

2014. urtean instalazio horiek ustiatzeko eta hondakinak garraiatzeko zerbitzua lizitatu zen, lau urterako, eta bi luzapen egin ziren urte batekoak, eta amaiturik dago.

En el 2014 se licita el servicio de explotación de estas instalaciones y transporte de los residuos para 4 años, con dos prórrogas de un año cada una, habiéndose finalizado la última.

Kontratu honen helburua da Garbera, Hernani, Oiartzun, Usurbil eta Atotxa-Errekako (Añorga) garbiguneetan (guztiak San Markoko Mankomunitatearen jabetzakoak) erabiltzaileak hartu eta horiei arreta eskaintzeko zerbitzua kontratatzea.

La finalidad pretendida mediante el presente contrato es la de recepción y atención a los usuarios de los garbigunes de Garbera, Hernani, Oiartzun, Usurbil y Atotxa-Erreka todos ellos propiedad de la Mancomunidad.

Era berean, kontratuaren barruan edukiera handiko edukiontzietan bildutako hondakinak berreskuratze, birziklatze edo deuseztatze zentroetara garraiatzearen zerbitzua sartuta egongo da.
Alokatu beharreko edukiontzi kopurua oso txikia denez, egoki jotzen da zerbitzu honen barne sartzea zenbait edukiontzi alokatzea ere.

Asimismo, el contrato comprenderá el servicio de transporte de los residuos recogidos en los contenedores de gran capacidad a los diversos centros de recuperación, reciclaje o eliminación. Teniendo en cuenta que la cantidad de contenedores a alquilar es insignificante, se ve adecuado incluir dentro de este servicio alquiler de varios contenedores.

Bi zerbitzu direla kontuan hartuta, eta SPKLk ezarritakoaren arabera, egoki irizten da zerbitzua ondorengo bi sortetan banatzea:

Teniendo en cuenta que se trata de dos servicios y tal y como establece la LCSP se ve adecuado dividir el contrato en los siguientes dos lotes:

1 Sorta: Erabiltzaileei arreta
Garbera, Hernani, Oiartzun, Usurbil eta Atotxa-Errekako garbiguneetan (guztiak San

Lote 1: Atención a usuarios
Recepción y atención a los usuarios de los garbigunes de Garbera, Hernani, Oiartzun,

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Marko Mankomunitatearen jabetzakoak) erabiltzaileak hartu eta horiei arreta eskaintzeko zerbitzua irizpide sozialekin.

Usurbil y Atotxa-Erreka todos ellos propiedad de la Mancomunidad, con criterios sociales.

2 Sorta: Garraio zerbitzua
Edukiera handiko edukiontzietan bildutako hondakinak berreskuratze, birziklatze edo deuseztatze zentroetara garraiatzearen zerbitzua, ingurumen irizpideekin.
Era berean, zerbitzuaren barne sartzen da hainbat edukiontziren alokairua ere.

Lote 2: Servicio de transporte
Servicio de transporte de los residuos recogidos en los contenedores de gran capacidad a los diversos centros de recuperación, reciclaje o eliminación, con criterios medioambientales.
Asimismo, dentro del servicio se incluye el alquiler de varios contenedores.

Zuzendari-kudeatzaileak adierazi du 1. lotea gizarte ekimeneko zentro bereziei eta gizarteratzeko enpresei erreserbatua dagoela. Ahalegin berezia egin da irizpide sozialak indartzeko, eta horiek ere puntuazioan baloratuko dira, kudeatzaileak azaldu duen bezala.

La Gerente indica que el Lote 1 es un contrato reservado a Centros especiales de empleo de iniciativa social y empresas de inserción. Se ha hecho un esfuerzo especial por fortalecer los criterios de carácter social, que se valorarán también en la puntuación, tal y como ha explicado la Gerente.

Ezin da lan hitzarmen zehatzik eskatu, baina zenbait baldintza ezarri dira garbiguneetako langileen egoera hobetzeko.

Si bien no se puede exigir un convenio laboral concreto, se han fijado una serie de condiciones para mejorar la situación de los trabajadores de los garbigunes.

Era berean, eskainitako prezioa baloratzeko formula aldatu da, eta doitu egin da, eskatutako irizpideen arabera bidezkoagoa eta proportzionatuagoa izan dadin.

Asimismo, se ha modificado la fórmula para valorar el precio ofertado, ajustándola para que resulte más justa y proporcionada según los criterios exigidos.

Lehendakariak gehitu du kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango dela, eta gehienez ere urtebeteko 2 luzapen.

El Presidente añade que la duración del contrato será de 3 años, con un máximo de 2 prórrogas de un año cada uno.

Halaber, adierazi du 5 garbiguneen ordutegiak desberdinak direla, kasu bakoitzean erabiltzaileen beharretara egokitu direlako.

Indica asimismo que los horarios de los 5 garbigunes son diferentes debido a que se han ajustado a las necesidades de los usuarios en cada caso.

Lizitazioaren esleipena 2021eko otsailerako amaitzea aurreikusten da.

Se prevé que la adjudicación de la licitación finalice para febrero de 2021.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea **PROPOSATZEN** da.

En base a estos antecedentes **SE PROPONE** votar el siguiente **ACUERDO:**

**LEHENA:** "San Marko Mankomunitateko garbiguneen erabiltzaileentzako harrera eta arreta zerbitzua eta hondakinen garraioa" kontratazioaren espedientea hastea (06/2020), prozedura irekiz eta bi sortetan banatuta.

**PRIMERO:** Aprobar el expediente para la contratación del "Servicio de recepción y atención a los usuarios de los *garbigunes* de la Mancomunidad de San Marcos y el transporte de los residuos" (06/2020), por procedimiento abierto y dividido en dos lotes.



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

**BIGARRENA:** Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

**SEGUNDO:** Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas, así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

**HIRUGARRENA:** Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

**TERCERO:** Disponer el inicio del procedimiento de adjudicación.

**LAUGARRENA:** 304.293,08 €-ko aurrekontuarekin (BEZ kanpo) gastua onartzea 2020ko aurrekontuko gastuen egoera orriko 227.162.10.15.03 (Garbiguneen kudeaketa) partidaren kargura.

**CUARTO:** Aprobar el gasto con un presupuesto de 304.293,08 €, IVA no incluido, a cargo de la partida 227.162.10.15.03 (Gestión de Garbigunes) del estado de gastos del vigente presupuesto de 2020.

**BOSGARRENA:** Lizitazioa kontratugilearen profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**QUINTO:** Publicar la licitación en el perfil del contratante y en el Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE).

**SEIGARRENA:** Mankomunitateko Lehendakariari ahalmena ematea kontratazio mahaiak harturiko proposamenaren baitan, kontratua esleitzeko eta sinatzeko, eta beharrezko administrazio tramiteak burutzeko.

**SEXTO:** Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la adjudicación y firma del contrato, según la propuesta de la mesa de contratación, y efectuar los trámites administrativos que procedan.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**4. Galde-eskeak.**

**4. Ruegos y preguntas.**

**4.1.** Lehendakariak jakinarazi du, Covid-19aren inguruan ezarritako protokoloetara egokitu ahal izateko, balitekeela Batzarraren hurrengo bilera modu birtualean egitea.

**4.1.** El Presidente informa de que, para poder adaptarse a los protocolos establecidos en relación con el Covid-19, es posible que la siguiente reunión de la Junta tenga que realizarse de forma virtual.

**4.2.** Halaber, azaroaren 13ra atzeratzea proposatzen da Batzarraren hurrengo ohiko bileraren deialdia, hasiera batean urrirako aurreikusten dena.

**4.2.** Se propone asimismo posponer al 13 de noviembre la siguiente convocatoria de reunión ordinaria de la Junta, prevista inicialmente para octubre.

Lehendakariak Batzordeko kideei beren agendak egiaztatzeko eskatu die.

El Presidente pide a los miembros de la Junta que comprueben sus agendas al respecto.

Data aldatzeko arrazoia da Batzordeari 2021erako aurrekontu-proposamena aurkezteko behar den denbora izatea.

El motivo del cambio de fecha es poder disponer del tiempo necesario para presentar a la Junta una propuesta de presupuesto para 2021.

**Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa**
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

sanmarkos
Mankomunitatea

1452578

## Akta ixtea

Beste aztergairik ez dagoenez, LEHENDAKARIAK bilkura bukatutzat eman du 09:10ean, idazpuruan adierazi bezala.

Idazkari naizen aldetik, akta 1452573tik 1452578ra zenbakiak dituzten orri ofizialetan jaso eta berrespena ematen diot Lehendakariaren oniritziaz.

## Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 09:10 expresado en el encabezamiento.

Levanto la presente acta en las hojas oficiales números 1452573 al 1452578 de todo lo cual doy fe, con el visto bueno del Presidente.

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK**

**EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK**

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco